

Gure enpresaren bezeroak bi talde nagusitan banatzen dira: janari azkarra gustuko duten kontsumitzaileak eta gure zerbitzuak kontratatzen dituzten enpresak edo erakundeak, ekitaldiak antolatzeke. Helburua da janari azkar estatubatuar goxoa eskaintzea, entretenimenduarekin eta esperientzia dibertigarri eta desberdin batekin uztartuta.

Bezero indibidualen artean familiak daude, plan polita, segurua eta umeentzako dibertigarria bilatzen dutenak, baita gazteak eta kuadrillak ere, argazki politikak ateratzeko eta musika giro alaia duen fast food tematikoa disfrutatzeko aukera izan nahi dutenak. Turistek Estatu Batuetako janari azkar benetakoa probatzea eta tokiko giroa bizitzea bilatzen dute, eta herriko jendeak urtebetetzeetan edo festa informaletan zerbait desberdina eta kalitatezkoa izatea nahi du.

Bezero profesional edo korporatiboen artean enpresak daude, langileentzako festak, aurkezpenak edo ekitaldi bereziak antolatzeke janari tematikoa behar dutenak, eta gure laguntzarekin marka ikusgarriago bihurtu eta esperientzia arrakastatsua sortu nahi dutenak. Jatetxeek, food truckek eta markek ere gure ekitaldietan parte hartuta euren ikusgarritasuna handitu eta bezero berriak lortzea nahi dute, eta ekitaldi-antolatzaile profesionalak beren ekitaldiek itxura berezia eta erakargarria izatea bilatzen dute. Horregatik, esperientzia tematikoak baloratzen dituzte.

Gure bezeroen beharrak ondo ezagutzen ditugunez, guk eskaintzen duguna haien gustura egokituta dago. Dibertsioa eta giro ona sortzen ditugu, dekorazioa, musika, jolasak eta gune sozialak prestatuz. Janari azkar goxoa eta kalitatezkoa eskaintzen dugu, hala nola hanburgesak, sandwichak, pizzak, takoak eta frijituak. Esperientzia originala eta berezia eskaintzen dugu fast food tematikoa izango den ekitaldiaren bidez. Antolaketa profesionala bermatzen dugu, sukalde mugikorrarekin, langile trebatuekin eta legeak errespetatuta. Gainera, pertsonalizazioa eskaintzen dugu ekitaldi motaren arabera, familiak, turistak, enpresak edo ekitaldi pribatuak kontuan hartuta.

Gure jarduera Estatu Batuetan garatzen dugunez, gure bezeroek kultura gastronomiko honako ezaugarriak baloratzen dituzte: janari tipikoak eta ezagunak, hala nola hanburgesak, pizza eta frijituak; fast food-a bilera eta jaialdietan ohiko aukera izatea; eta behar bereziak dituzten pertsonak kontuan hartzea, hala nola begetarianoak, beganoak edo glutenik gabe jan behar dutenak.